

**MIRIAN UNANUE ETA AINGERU TOMASENA - EUSKOTRENEKO MAKINISTAK**

## “Gidariarentzat momentu txarrena beteta dagoen geltoki batera iristea da, mantso joan behar duzu inor ez harrapatzeko”

■ Bi urte dira Mirian makinista dela eta bat Aingeru lan honetan hasi zenetik. Hala ere, ordura arte ere Euskotrenen bertan ari ziren lanean.

Belaunaldiak aurrera gero eta emakume gehiago dago trenak gidatzen. Makinista izan aurretik ere egunero tren geltokira joaten ziren Aingeru eta Mirian, izan ere, Euskotrenen barruan lanbide batean baino gehiagotan aritu baitira. Gustatzen zaie makinista izatea eta aurrentzean ere trenarekin zer ikusia duten lanetan aritzeko asmoa azaltzen dute.

**■ Nola iritsi zarete makinista izatera?**

Lehen FP 2 eskatzen zuten; elektronika eta elektrizitatea. Hori orain aldatu egin dute, orain EGB besterik ez dute eskatzen. Trena gidatzen gero bertan ematen duten ikastaroan ikasten da; teorikoa eta praktikoa.

Mirian-Ni makinista izan aurretik leihatilan aritu naiz, pika izan naiz eta baita estazio buru ere. Aingeru leihatilan aritua da.

**■ Nola gidatzen da tren bat? Konplikatu da?**

Ez, trena gidatzea erraza da; arazoak aberiak daudenean izaten dira. Askotan makinistak ezin izaten du gauza haundirik egin, tailerrean konpontzen baitute trena, baina aberia non dagoen behintzat jakin behar izaten da. Okerrena jendeari azalpenak ematen ibili beharra da; zu aberia non dagoen jakin nahian zabilta eta jendeak zuri egiten dizkizu galderak, treneau bakarrik joaten baikara; lehen pikak joaten ziren gurekin laurogeita hamarrarekin ez dugu arazorik izan.

**■ Emakume gutxi izango zarete...**

Gero eta emakume gehiago gara eta eskerrak. Egia esan lehen nahiko matxistak ziren,



**Mirian Unanue eta Aingeru Tomaseña.**

zorionez hori aldatzen ari da. Aurreko generazioek arraro samar begiratzen dizute; broamatua komentatu izan dute, emakumeak makinista sartu direnetik... Egia esan ehuneko laurogeita hamarrarekin ez dugu arazorik izan.

Jendeak ikusten gaituenean, komentarioa egiten du, harritu egiten dira, baina ez dugu arazorik izan.

**■ Garraio seguruena ez bada seguruenetako da trena.**

Bai hala da. Trenak segurtasun sistema asko ditu; zu aztoratzen bazara edo edozein gauza ger-

tatzen bazaiztu trena gelditu egiten da. Gaur egun errazagoa da kanpoko norbaiti istripua geratzea; trenak harrapatu edo horrelako sustoren bat izatea. Akatsak guk edo goikoek izan behar ditugu, akats teknikoak izatea oso zaila da.

**■ Estuasunik pasa al duzue?**

Susto haundirik ez, baina batzutan jendea trena ikusita ere aurretik pasatzen da eta ez da konturatzan zuk frenoari eman da ere, trena ez dela momen tuan geratzen, hori abiaduraren araberakoa izaten da.

**■ Autobuseko gidariak jen-**

dearekin kontaktu gehiago du baina makinistak ordu asko pasako ditu bakarrik, ezta?

Bai, baina ez pentsa jendearkin tratatzea hain erraza denik. Leihatilan egotea adibidez oso gogorra da; Donostian erokeria da. Bileteak emateaz gain informazioa ematearen lana ere zurea dela ematen du. Biletea eman eta perssona bakoitzari lau edo bost galdera erantzun behar izaten dizkiozu. Alde horretatik hobe makinista izatea.

Egia da bakarrik denbora asko egiten da; batzutan ondo datorkizu, besteetan ez hain ondo.

**■ Gustatzen zaizue zuen lana?**

Bai, bai, gustora gaude. Egia esan ordutegi txar samarra izaten dugu batzuetan; jai egun askotan egin behar da lan eta baita gauzere, festak direnetan... baina tira, gustora gaude. Trena gidatzea polita da, alde batetik bes

teria zabilta. Gerta daiteke urteak aurrera monotonoa bihurtzea, baina hori lan gehienekin gertatzen da.

**■ Festetan eta horrelakoetan makinistak nabaritzen du ezberdintasunik?**

Bai, bai. Momentu okerrena jendez beteta dagoen geltoki batetara iristea da, mantsoago joan behar izaten duzu inor ez harrapatzeko.

Tentsoa izaten da adibidez, jende asko izaten baita Anoetan partidua dagoenean jartzen diren tren bereziak gidatzea. Oso kontuz iritsi behar duzu,

ateak ireki eta harrigarria da, dena goraino betetzen da bat batean. Anoetan jende asko egonda ere ez dira mozkorrak egoten; okerragoa da jendea mozkorturik dagoenetan.

Elgoibarren larubat arratsaldetan ikusgarria izaten da. Duela urte bat Elgoibarren bikote bat zegoen andenean elkarri bultzaka, jolasean, eta azkanean erori eta harrapatu egin zituen trenak. Bizirik atera ziren baina...

Gainera trenean zu bakarrik zoaz, ezin diozu laguntza inori eskatu, baditugu telefonoak baina momentuan zu bakarrik zaude.

Trena beteta izanik ere, Aste Nagusian adibidez, geltoki guztietan geratu behar duzu jendea atera dadin. Hendaian trena betetzen da, Irunen jende gehiago sartzen da eta batzutan trenak gehiegiz betetzen dira; hori arriskutsua da eta noizean behin izaten dira seguratak hori neuritzeko. Geldi gaudenetan balantza nabaritzen dira horrelakoetan; martxan jarritakoan ez.

**■ Eta zuek bidaiatzen duzue trenet?**

Mirian-Ba egia esan ez. Euskotren Hernanira iristen ez delako eta RENFEko alferke-riagatik, errazago joaten naiz autobusera.

Aingeru-Ez, nik ere ez dut erabiltzen, kotxez mugitzen naiz normalean. Donostiara egia esan gutxi joaten naiz, lanera bakarrik ia, eta nahi eta nahi ez kotxez joan behar dut ordutegiak direla eta.

Hala ere trena erabiltzea egokiagoa da; merkeagoa da eta Donostiara adibidez 10 minutuan iristen zara, autobusez baino azkarrago, eta segurua da. □

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089  
Elkano 12 - Tel.: 943 553142  
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487  
20120 Hernani



**Fisioterapia**  
**KIMERA**  
Antziola 16 behe. © 943 556 427

**LESIOS TRATAMENDUAK:**

- Traumatologikoak: esguintzeak, kontrakturak...
- Reumatologikoak: tendinitis, artrosia,....
- Neurologikoak: hemiplejiak, paralisiak...
- Kirol Lesioak: fibra hausturak, sobrekargak

**TRATAMENDUA TEKNIKAK:**

- Osteopatia
- Masajea
- Eskuzko terapia
- Elektroterapia: ultrasonidoak, "onda corta",...

ISTRIPU ASEGUROUAK ETA ETXEKO ATENTZIOA

**Yaben English School**  
Iturriaga z/g. 20120 Hernani Tel.: 943 33 17 63

**5 eta 9 urte bitarteko haurretan espezializatuak**  
Especialistas en niñ@s de 5 a 9 años

**20 urte arteko ikasleentzat klaseak**  
Clases para estudiantes hasta 20 años

**Helduentzako klaseak (Clases para adultos)**

Matrikula irekia: Itailaren 1etik 15era  
Bulego ordutegia: 10:30etatik 12:30etara

"focal examination Syndicate" of Cambridge University-ko kide



Kantuz Abesbatza kurto berrirako entsaioekin gaur hasiko da.

## Kantuz Abesbatzak gaur hasiko ditu entsaioak

■ Milagrosan, 19:30etan gelditu dira ■ Ozenki lehengo astean hasi zen.

KANTUZ Abesbatzak gaur hasiko ditu entsaioak, arratsaldeko 19:30etan Milagrosan. Gaur egunen 40 bat kidek osatzen dute taldea eta ia denek segiko dute, taldeko kideek Kronikari esan diotenez. Zuzendari Amaia Sasiain herniarin gaztea izango da azken kurtsoan bezalaxe.

Kantuzek dei egin die herniarrei abesbatzan hasteko.

Kantatzea gustoko duen guztia ditzu ateak irekita, gizon eta emakume, nahiz eta momentu honetan gizonezko gehiago behar taldean. Entsaioak asteleen eta asteazkenetan dira 19:30etan, Milagrosan. Kurtsoko lehen kontzertua Santa Zezilia inguruan izango dute seguruenera, azaroaren 22an eta ordurako ahotsak puntuaren jari nahi ditu Abesbatzak.

Ozenki entsaiotan Ereñotzuko Ozenki Abesbatzak dagoeneko hasiak ditu kurto berriko entsaioak. Taldea 25 bat kidek osatzen dute eta entsaioak asteazkenetan egiten dituzte, iluntzeko 21:00etan, Karabelgo Doinu Zale musika eskolan. Zuzendari Imanol Kamio ereñotzuar musikari eta irakaslea izango da aurren ere. □

## Silvio Rodriguezek Illunben emango duen kontzerturako sarrerak Hernanin

■ Datorren ostiralean emango du kontzertua Donostian, Illunben, 22:00etan.

SILVIO Rodriguez trobadore kubatarra kontzertua emango du datorren ostiralean, Donostiako Illunbe zezen plazan, iluntzeko 22:00etatik aurrera. Kontzertura joan nahi duten herniarrek Egoiki tabernan dauzkate sarrerak salgai, Lizeaga kalean. Silvio Rodriguez bira bat egiten ari da egunotan eta atzo eta gaur Bartzelonan zen aritzekoa eta 12an Salamanca eta hilaren 15ean Vigo emango ditu kontzertuak.

Silvio Rodriguez nazioartean eskari haundieta duen musikari kubatarra da eta hamaika sari diskografiko jasoak ditu dagoeneko, bai kuban, bai Ameriketan eta baita Europen ere. Dagoeneko 19 diska baditu kaleratuak eta bere biretan 100.000 entzulek gora biltzera iritsi izan da. □



Silvio Rodriguez.

### HERNANI HIZKUNTZAK

(Gure Ingelesetxea)  
ZORIONAK guziontzat Advanced eta First  
azterketak gainditzeagatik.

DATORREN IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1

Allianz

ASEGURUA  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA


Telf.: 943 557 326  
656 735 109

## Portuko festetako errifa saritua

■ 1.393 zenbakia da ■ Afaria eta 150 euro dira saria.

PORTUKO festak pasa berri dira eta errifako zenbaki sarituan berri eman du Jai Batzordeak. 1.393 zenbakia duenak bi lagunentzako afaria eta 150 euro irabazi ditu, eta lehenbailehen jarri behar du harremanetan Portuko Jai Batzordeko kideren batekin.

Jai Batzordeak aurten festetako balorazio ona egin du, egunez jende asko eta larunbat gauean ere lepo bete baita Portu. Jai Batzordeak eskerrak eman dizkie Portuko bizilagunei eta festetan parte hartu duen kanpoko jendeari. □



### FUTBOLA

## Hernanirentzat Ontoria memoriala

■ Lizeo Santo Tomasi 0-1 irabazi dio eta Vasconiarri 2-1.

ERREJIONAL mailako taldea ari da puntuan jartzen denboraldi hasierarako eta joan den asteburuan irabazi egin du Sebas Ontoria memoriala, Martutenean. Ligak kontrario izango dituen bi talderen batean jokatu dute memoriala eta bi partiduak irabazitza lortu dute txapeldun gelditzea. Jon Loran taldeko koordinatzaile nagusiaren

hitzetan taldea ari da tankera hartzen eta maila ona ematen ari da denboraldi aurreko torneo hauetan. Loranek Kronikari esan dionez, denboraldia hasteko irrikitan dago taldea, zenbat lezakeen erakusteko.

Bestalde, Hernaniko klubak dei egiten die baziakideei denboraldi hasieran taldea animatzera taldearekin batera mugitzeko. □

**JULEN FERNANDEZ CUESTA**  
(Adur Fernandez Kuesta ikaslearen aita)

Abuztuaren 10ean hil zen lan istripuz

“Urak dakarrena  
Urak darama  
Zuk emandakoa  
gurekin gelditzen da”

**LANGILE**  
IKASTOLA

Hernanin 2004ko irailaren 8an

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alcohólico anonimo: 943 331103

#### FARMAZIAK

- Egunez: Bilbao-Sagastiberri  
Urbietza 7  
☎ 943 552941
- Gauzez: Zatarain  
Andoain. Arteta z/g  
☎ 943 290802

### IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 7.30etatik- 15.30etara gutxi gorabehera. Irakasle egutegia eta Aieten da. Deitu: 943 31 47 84 - 669 89 10 34

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertsbralra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

**LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO  
GOI MAILAKO TEKNIKARI  
MASTERA**

- ✓ LANEKO SEGURTASUNA
- ✓ HIGIENE INDUSTRIALA
- ✓ ERGONOMIA
- ✓ Urriak 1-ean

MATRIKULAZIO EPEA  
IRAILAK 10ean bukatuko da.

**UROLALDE AKADEMIAN** dauzkazun aukerak:

- |              |                        |
|--------------|------------------------|
| - IKASTROAK  | - MEKANOGRAFIA         |
| - HIZKUNTZAK | - HAUR, GAZTE ETA      |
| - OFIMATIKA  | - ENPRESEI SUBENTZIOAK |
|              | LORTZEKO AUKERA        |
|              | HELDUENTZAT            |

**UROLALDE, S.L.** - Onddi kalea, 1. - Tel.: 943 33 42 27 - HERNANI